



3. seuskadi

Hirugarren Sektor Sozialeko
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social

EUSKO JAURLARITZA

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLITICAS SOCIALES

PRAKTIKA ETA ESPERIENTZIA ADIERAZGARRIAK EREDU MISTOAN

Proiektuaren proposamena

Hirugarren Sektor Sozialaren Euskal Behatokia-

2021eko otsaila



3. sektoreakadi

Hirugarren Sektorre Sozialeko
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLITICAS SOCIALES

Aurkibidea

1. SARRERA.....	3
2. MARKOA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
3. PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK.....	8
4. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA.....	11
5. BIBLIOGRAFIA	14
6. ERANSKINAK.....	15



3. sektoreakadi

Hirugarren Sektor Soziala
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES

1. SARRERA

Proiektuaren helburua da esperientzia eta praktika adierazgarriak identifikatu eta biltzea, lankidetzeta eta elkarlan publiko-sozialarekin lotutakoak. Informazio horren bidez, lankidetzeta publiko-pribatuko eta zehazki publiko-sozialaren “eredu mistoaren” hedapena eta finkapena ebaluatu eta jarraitu ahal izateko elementuak izango ditugu, hain zuzen ere, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurari eta Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialari dagokionez, betiere, erantzukizun publikokoak ez diren interes orokorreko beste jardueretan.

Bereziki, lankidetzeta esku-hartze sozialaren arloan, eta zehazki Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari erantzukizun publikoko zerbitzuen horniketari (diseinua, laguntza, ebaluazioa eta hobekuntza) kokatuko genuke. Era berean, ahal den neurrian, sistema sozio-laboralaren eta sozio-sanitarioaren edo beste batzuen artean elkarrekintzako guneetan ere kokatuko dugu.

Eredua mistoa administrazio publikoen eta ekimen pribatuko erakundeen (oro har) arteko lankidetzeta gisa ulertu behar da, baita Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala (aurrerantzean HSS) osatzen dutenak ere, zehazki. Zehatzago esanda, lankidetzeta hori esku-hartze sozialaren arloko politiken exekuzioan zehazten da, Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen III. kapituluari bildutakoarekin bat etorriz.

Lankidetzeta horren arloetako bat da erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzea gizarte-zerbitzuen arloan, enplegurako sarbidea sustatzean, eta eremu soziolaboralean, soziohabitazionalan, sozioedukatiboan, soziosanitarioan, soziojudizialean, soziokulturalean eta beste batzuetan.

Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialaren Sustapen Estrategiak biltzen duen moduan, *“elkarlan publiko-sozialak bidezko gizartearen eta gizarte solidarioaren, berdintzailearen eta kohesionatuaren, demokratikoaren eta parte-hartzailearen bermea izan behar du, guztiei on egitera zuzenduta eta pertsonen aldeko apustua eginda. Beraz, denbora batez erantzukizun publikoa finkatzea eta behar sozialei emandako erantzunetan, bereziki esku-hartze sozialaren arloan, gizarte zibilaren esku-hartze aktiboa eskatzen duen gizarte- eta garapen-ereduaren baitan oinarritzen da”*.



2. MARKOA ETA JUSTIFIKAZIOA

2.1. Araudi mailako esparrua

Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea¹ eta Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialaren 6/2016 Legea dira proiektu honen esparruak.

Gizarte-zerbitzuen legearen 5. artikulua (ikus eranskina) zehazten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, eta bigarren atalean adierazten du ekimen publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduek osatzen dutela. Horrek sistema, bere definiziotik, mistoa dela esan nahi du. Eredu mistoa administrazio publikoen eta ekimen pribatuko erakundeen arteko lankidetzat gisa ulertu behar da; Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala eta enpresa-ekimen pribatua biltzen ditu.

Edonola ere, erantzukizun publikoko printzipioari buruzko lege horren 7.2 artikulua (ikus eranskina) ezartzen ditu kudeaketa publikoaren nagusitasuna eta gizarte-ekimenaren bidezkoa. Gizarte-ekimen hori, 7. artikulua, i hizkian, irabazi-asmorik gabeko ekimenarekin identifikatzen du, hau da, 6/2016 legeak positiboan ekimeneko gizarte esku-hartzeko erakunde gisa definitzen duen Hirugarren Sektor Sozialarekin.

Idea hori EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikora eramaten da aipatutako legearen 35.3 artikulua bidez. Legeak ezartzen du planak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuen prestazioetan sektore publikoen eta pribatu itunpekoen parte-hartzeari buruzko orientazioa txertatu beharko duela.

Gainera, kontuan izan behar da Hirugarren Sektor Soziala Legean (7. artikulua)² topatuko dugula elkarrizketa zibilaren printzipioa. Horren bidez, pertsona hartzaileek, ordezkatzeko erakunde bidez, dagozkien politika publikoetan parte hartzeko duten eskubidea aitortzen da.

Parte-hartze hori, legearekin bat etorritik, fase guztietan gauzatu behar da (diseinua, exekuzioa, jarraipena eta ebaluazioa). Exekuzioa da zerbitzuen horniketan parte hartzeko aukera ematen duen fasea, Gizarte Zerbitzuen legeak aipatzen duen lerro berebean eta bi arauak aintzat hartzen duten terminoetan.

¹ 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2011-15726

² 2 Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 LEGEA. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>



Hortik aurrera, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko III: kapituluak³ lankidetzara eta elkarlana banakatzen du Hirugarren Sektorre Sozialaren eta administrazio publikoaren arteko esku-hartze sozialaren arloko politiken exekuzioan. Eta zehazki, erantzukizun publikoko sistemetan (gizarte-zerbitzuak eta enplegurako sarbidea sustatzeko zerbitzuak) eta sistemen arteko elkarrengaitze-eremuetan (soziolaborala, soziohabitazionala, sozioedukatiboa, soziosanitarioa, soziojuduziala, soziokulturala eta beste batzuk).

Aipatutako atalean zehazten da erantzukizun publikoko sistemetan eta sistemen arteko elkarrekintza eremuetan nolakoa izan behar duen elkarlanak eta laguntzak (10. artikulua). Hiru arloren ostean zehazten den lankidetzara: a) erantzukizun publikoko sistemen kudeaketan eta sistemen arteko elkarrekintza eremuen kudeaketan (11. artikulua); c) erantzukizun publikoko zerbitzuen horniketara (12. artikulua); d) kasuaren koordinazio eta errentziatzeko funtzioetan (13. artikulua). Eta azkenik, 14. artikulua administrazio publikoak erakundeekin duten elkarlanean oinarritzen da, haiek garatutako interes orokorreko beste jardura sozial batzuetan, baina erantzukizun publikotik at.

2.2. Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala sustatzeko estrategia

Zehazki, Estrategiak lau arlo horiek aipatzen ditu esku-hartze sozialaren arloan eredu mistoko (lankidetzara publiko-soziala) hedapenaren jarraipenari, bultzadari eta balorazioari buruzko 5 zenbakiko jarduketa deskribatzen, honela:

<<Eusko Jaurlaritzak, hala nahi duten Euskadiko beste administrazio publiko batzuekin elkarlanean, eta Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeekin eta sareekin esku-hartze sozialaren arloko sistemen artean elkarrekintza-eremuetan eta sistema desberdinetan lankidetzara publiko-sozialaren (eredu mistoa) hedapena bultzatzeko, baloratzeko eta horri jarraitzeko ekintzak egingo dituzte, betiere, kantitateari eta kalitateari dagokionez Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeen parte-hartzeari arreta eskainiz:

- a) erantzukizun publikoko sistemen kudeaketan eta sistemen arteko elkarrekintza-guneetan;
- b) zerbitzuen horniketara (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza);
- c) Erreferenteari eta kasuaren koordinazioari (edonola ere, administrazio erantzuleak ordezkatutako parte-hartzea) dagozkion funtzioak egitean;
- d) Laguntza soziala ematean eta arreta-sistemetara sartzeko zerbitzuetara bideratzeko, orientatzeko eta informazioa emateko jardueretan laguntza eskaintzean



Horrela, politika sozialetan Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeek eta sareek, zuzenean edo sareen bidez, honako hauetan hartu hartu ahal izango dute:

- a) **Esku-hartze sozialaren** arloan, erantzukizun publikoko **sistemen kudeaketa** betiere, gizarteratzea, garapenerako lankidetzak, herritar guztien eskubideak aitortzea eta zaugarritasun-egoera, bazterkeria-, babesik-eza, desgaitasun- edota mendekotasun-egoerei aurre egin behar dieten pertsonen, familien, taldeen edo komunitateen aldeko ekintza eraginkorra sustatzeko helburuarekin; eta arloan, politiken eta sistemen arteko **elkarrekintza-guneetan**: eremu soziolaboralak, soziohabitazionalak, sozioedukatiboak, soziosanitarioak, soziojudizialak, soziokulturalak eta beste batzuk.
- b) **Zerbitzuen horniketa** (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza); horiek eskaintze hutsa baino gehiago izango litzateke, Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeek horniketan parte hartuz, horien diseinuan, prestazioan edo kudeaketan parte hartzen dutela ulertuz; baita ebaluazioan eta horien kalitate-irizpideari erantzunez beharrezkoak diren hobekuntza-proposamenen ere.
- c) **Erreferentziako funtzioak** egitean eta **kasuen koordinazioan** ordezkaria (esku-hartze sozialeko prozesuaren fase guztietan), erreferentearekin elkarlanean arituz. Parte-hartze hori izateko, aurretik, erakundeek esku-hartzea egin beharko dute, eta izaera bereziko jardura duten erakundeen kasuan, bi arauetan aurrez ikusitakoarekin bat etorrituz.
- d) **Lagun-egite soziala** pertsonen eta familien esku-hartzeko prozesuan zehar, hartzailea, lehenik, erakundearekin harremanetan jarri denean. Lagun-egite soziala laguntza teknikoa da, eta hartzaileen eta Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeen arteko aurretiazko kontaktuarekin erlazionatzen da. Ezagutza eta eskaera bat ezarriko dira eta informazioaren, orientazioaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako deribazioaren bidez, edo beste arreta-sistemen bidez kudeatuko da.




2.3. Hirugarren Sektor Sozialaren definizioa eta proiektuan aintzat hartutako arloak (kontingentziak).

Azkenik, proiektu honen testuinguruan, Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak biltzen duen EHSSren definiziotik abiatzen da. Honako hau ulertzen du: Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala “gizarte-ekimeneko erakundeek osatzen dute, egoitza eta jarduketa Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak. Helburu nagusia da gizarte-ekimeneko jarduketan bidez gizarteratzea, garapenerako lankidetzeta eta zaugarritasun- edo bazterkeria-egoerei, eta desberdintasuna, babesgabeteza, desgaitasuna edo mendekotasun-egoerei aurre egiten dien pertsonen, familien, taldeen edo komunitateen eskubideen gauzatze eraginkorra bultzatzea”.

Era berean, lege horrek honako hau biltzen du: “Euskadiko hirugarren sektor soziala saretzat hartzen dira besteen ordezkagarriak diren bigarren mailako eta maila altuagoko antolakuntzak, bai eta kolektibo jakin bat ordezkatzeko duten Euskadiko hirugarren sektor soziala esku-hartze zuzeneko antolakuntzak ere, baldin eta jarduteko lurralde edo esparru geografikoan ez badago kolektibo hori ordezkatzeko sarerik”.

Erakundeek artatutako **kontingentziak** garrantzi berezia du proiektu honen testuinguruan; izan ere, horien baitan esperientzia eta praktika adierazgarriak identifikatzean eta biltzean kontuan izan beharreko faktorea da. 2019ko Barometroarekin bat etorritik, Euskadiko Hirugarren Sektor Soziala antolakuntzen % 22,6k bazterketa-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzte; % 15,1ek, desgaitasuna duten pertsonak; % 5,4k, babesgabetasun-egoeran daudenak; eta % 3,6k, mendekotasun-egoeran daudenak edo mendekotasunean egoteko arriskuan daudenak. Gainerakoek jardueraren, antolakuntzen erdiena baino gehiagoren, hartzaile nagusiak, besteak beste, zaugarritasun- edo desberdintasun-egoerei aurre egiten dieten pertsonak dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ARTATUTAKO GERTAKIZUNAREN ARABERA. (%)





3. PLANTEAMENDUA ETA HELBURUAK

Dagoeneko aipatu den moduan, proiektuak lankidetzara publiko-sozialeko esperientzia eta praktika adierazgarrien identifikazioa egin nahi du. Horiek, esku-hartze sozialaren baitan, eredu mistoaren hedapena eta finkapena jarraitu eta ebaluatzeko elementua izatea ahalbidetzen dute, Euskadiko Hirugarren Sektorerako Sozialeko Legean zehazten den moduan (4. artikulua).

Horretarako, eta azterketarako helburua zehazte aldera, informazioa ematen duten eragileentzako bereziki garrantzitsuak diren esperientzietan jarriko da ardatza, hainbat irizpidetara egokitzen direnetan:

- Jarduketa arloaren ikuspegitik, proiektua Gizarte Zerbitzuen arloan eta zehazki Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari oinarrituko da. Hala ere, esperientzien eta praktiken bilaketak kontuan izango du interes orokorreko beste jardueretan administrazio publikoek hirugarren sektorerako sozialarekin egindako elkarlana ere (beraz, ez da modu eksklusiboan arlo publikoan zentratuko).
- Zerbitzuen horniketan lankidetzara gauzatzeko tresnen ikuspegitik, proiektuak hitzarmenak eta kontratuak hartuko ditu aintzat. Euskadin oraindik ez dago 12/2008 legean aurrez ikusitako itunik.

Era berean, esperientzien identifikazioa, lehen biak lehenetsiko dituen arren, Euskadiko Hirugarren Sektorerako Soziala Sustatzeko Estrategiak eredu mistoaren hedapena jarraitzearen, bultzatzearen eta baloratzearen inguruan 5. jarduketan biltzen dituen politika sozialean (esku-hartze soziala) erakundeen eta sareen partaidetzara lau arloekin bat etorri egingo da, kasu batzuetan artatutako kontingentziaren arabera mugatuz:

- a) Erantzukizun publikoko sistemen kudeaketa eta sistemen arteko elkarrekintza-guneak. Mendekotasunean, desgaitasunean eta bazterkerian esperientzia adierazgarriak aukeratuko dira.
- b) Zerbitzuen horniketan (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza). Mendekotasunean eta bazterkerian esperientzia adierazgarriak aukeratuko dira.
- c) Erreferenteari eta kasuaren koordinazioari (edonola ere, administrazio erantzuleak ordezkaturako parte-hartzea) dagozkion funtzioak egitea.
- d) Laguntza soziala ematea eta arreta-sistemetara sartzeko zerbitzuetara bideratzeko, orientatzeko eta informazioa emateko jardueretan laguntza eskaintzea.

Euskadiko Hirugarren Sektorerako Sozialaren (EHSS) heterogeneotasuna kontuan hartuta, hainbat esperientzia eta praktika aurkeztuko dira bost irizpide hauetako bakoitzean dauden elementuen aniztasunari arreta emanez:

- Lidergoa: administrazioetik edo EHSStik abiatuta.
- Kontingentzia: mendekotasuna, desgaitasuna, bazterkeria edo babesgabetzea.
- Erantzukizun mota: publikoa den ala ez.
- Tresna: kontratua edo ituna den – laguntza
- Iraupena: denboran egonkorra den edo aldi baterako den.

Irizpide horiek sistema, azpisistemak (sareak) eta aurkeztutako zerbitzuak aztertze nahikoa informazio eskaini beharko dute.

Hori guztia hauek lortzeko:

- esperientzia bakoitzaren eta horrekin lotutako lankidetzako eta elkarlaneko praktiken deskribapena** (edukia, kontingentzia, lankidetzaren alderdi bakoitzaren rola, beren arteko harremanaren prozedura, iraupena, hartzailerekiko eta beren familiekiko harremana, lankidetzaren edo elkarlanaren plangintza egin den, gauzatzeko tresna mota...);
- balorazioa**, informatzen duenaren irizpidearen arabera, esperientziari eta zerikusia duten praktikei buruz (administrazioaren eta erakundearen balorazio gurutzatua, hobetu beharreko gakoak, elkarlana egiteko erabilitako tresna erabilgarria izan den ala ez, zer abantaila eskaintzen dituen, zer muga dituen...);
- eta **hobetzeko proposamenak** (baloratutako esperientzien eta praktiken gainean, bai erakunderako, bai administrazioarako, hirugarrenentzat eta lankidetzaren publiko-sozialeko eredu mistoarekin lotuta oro har), balorazioetatik eta proposamenetatik abiatuta ondorioak multzoan ezartzera iritsiz.



Horretarako, proiektuan helburu hauek zehaztuko dira:

ERANTZUN BEHARREKO HELBURU

EZAZAGUNAK

1. Esperientzia eta praktika adierazgarriak identifikatu eta deskribatzea, dagoeneko aipatutako irizpideekin bat etorritz.

- Mugatze-irizpideak kontuan hartuta, lankidetzaren publiko-sozialeko zer praktika eta esperientzia dira bereziki adierazgarriak?
- Zer eragile daude inplikaturik eta zein dira haien zereginak?
- Zein da hartzaile diren parte-hartzaileekiko harremana?
- Zein da elkarlana gauzatzeko tresna mota?
- Nola dago kokatuta Euskadiko Hirugarren Sektorerako Soziala Sustatzeko Estrategiaren 5. jarduketaren baitan?

2. Aztertu eta baloratu identifikatutako esperientziak

- Inplikaturik dauden agenteek esperientziari buruzko zer balorazio egiten dute?
- Zein dira hobetu beharreko pausoak?
- Zein dira erabilitako tresnaren mugak eta abantailak?

3. Hobetzeko proposamena egin

- Zein dira administrazio publikoentzako hobetzeko proposamenak?
- Zein dira erakundeetarako hobetzeko proposamenak?
- Zein dira hirugarrenentzako hobetzeko proposamenak?
- Zein dira lankidetzako eredu mistorako hobetzeko proposamenak?




4. METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

Proiektuari heltzeko proposatzen den metodologia informazioa bigarren mailako iturrietatik eta aukeratutako eragileekiko elkarrizketatik abiatuta lortzean oinarritzen da.

1. **Sareen Sarearekiko lehen harremanaren eta hura osatzen duten sareen bidez**, esperientzia adierazgarrien lehen zerrenda bat identifikatuko da adierazitako aukeraketa-irizpideetatik abiatuta. Zerrenda hori Administrazio Publikoarekin kontrastatuko da, eta behar izanez gero, osatu egingo da.
2. **Bigarren mailako iturrien kontsulta**: paraleloki, eta esperientzia adierazgarriak identifikatu, sailkatu eta erregistratzeko, web-arakatzean oinarritutako informazioa biltzeko teknika proposatzen da. Lehen zehaztutako irizpideak kontuan hartuta bilaketa egitea da helburua. Bilaketa Internet bidez egingo da, ahalik eta praktika eta esperientzia gehien identifikatzeko.
3. **Inplikaturako eragileei balorazio-elkarrizketak egingo zaizkie** aukeratutako esperientzietan, bai administrazio publikoenak, bai Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialarenak. Elkarrizketen helburua esperientziaren balorazioa egitea da, egokiak izategatik elementu bereziki adierazgarriak eta hobetu litezkeen elementuak identifikatuz. Eragileen laginaren aukeraketa (Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeena eta administrazio publikoarena) laginketa intenzionalean oinarrituko da; izan ere, aukeratutako esperientzia bakoitzean inplikaturako eragileak izango dira.
4. Aukeratutako esperientzietan inplikaturako eragileek parte hartuko duten **lan-mintegiaren** bidez, elkarlaneko eredu mistoaren baitan administrazioentzat eta EHHSrentzat hobetzeko **proposamen orokorrak** aurreratuko dira. Proposamen horiek hirugarren batzuekin kontrastatu ahal izango dira.


Hori guztia kontuan izanda, proiektua lantzeko **laneko plan** hau proposatzen da:



Emaitza gisa, Euskadik Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren 5. jarduketan zehaztutako lau arloen azterketarekin txosten bat eskainiko da; bertan; eredu mistoaren hedapena eta finkapena jarraitu eta ebaluatuko duten lankidetzak publiko-sozialeko esperientziaren elementuen gogoeta egingo da. Hobetzeko elementuen baloraziotik eta adierazgarri gisa har daitezkeenetik abiatuta egingo da, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialerako, administrazio publikorako, hirugarrengozako eta lankidetzako eredurako (oro har) helburu zehatzekin.



Era berean, aztertu beharreko esperientzia adierazgarri bakoitzerako fitxa bat eskainiko da eta eremu hauen informazioa bilduko du modu sistematizatuan:





5. BIBLIOGRAFIA

Euskadi. 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, *Gizarte Zerbitzuei buruzkoa*. Webgune honetan eskuragarri: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/12/s08_0246.pdf

Euskadi. 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa*.

Euskadi. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzkoa. Webgune honetan eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096a.pdf>

Eusko Jaurlaritza (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala Sustatzeko Estrategia*. Webgune honetan eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_ss/eu_planes/adjuntos/Estrategia%20promoci%C3%B3n%20tercer%20sector%20-%20Plan%20de%20la%20Legislatura%20EUS.pdf

Eusko Jaurlaritza (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala Sustatzeko Estrategia. 2018-2020ko Legealdiaren Plana*. Webgune honetan eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_ss/eu_planes/adjuntos/Estrategia%20promoci%C3%B3n%20tercer%20sector%20-%20Plan%20de%20la%20Legislatura%20EUS.pdf



6. ERANSKINAK

12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Hemen argitaratua: «BOE» zk. 242, 2011ko urriaren 7an, orrialdeak 105335etatik 105396etara I. Titulua. Xedapen orokorrak. Saila: Euskal Autonomia Erkidegoa. Erreferentzia: BOE-A-2011-15726

5. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema.

1.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta ongizatearen alde egitea du xede, eta sustatzeko, aurreikusteko, babesteko eta laguntzeko eginkizunak betez gauzatu nahi du xede hori, funtsean pertsoneri eta harremani buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

2.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz egongo da osatua.

3.– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren jardunak gizarte-ongizatea lortu nahian ari diren beste sistema eta politika publiko kideko edo osagarri batzuekin koordinatu behar dira.

4.– Lege honetako 2. artikuluan jasotako eskubide subjektiboa eta 6. artikuluan ezarritako helburuak bermatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema beharrezko baliabideak izango ditu emandako zerbitzuen eta arretaren ikuskapenerako, ebaluaziorako eta kalitatearen etengabeko hobekuntzarako, lege honetan ezarritako eran.

7. artikulua. Printzipioak.

Hauek dira Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema arautuko duten printzipioak:

a) Erantzukizun publikoa. Botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioen eta zerbitzuen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua bermatuko dute. Nolanahi ere, sistemara sartzeko prestazioen, eskarien lehenengo harrerako prestazioen eta kasu-koordinazioarekin zuzenean lotutako prestazioen zuzeneko kudeaketa publikoa bermatuko dute, 59.2 artikulua dioenaren arabera. Osagarri modura, zerbitzuen eta erabiltzaile eta profesionalen beharrezkoen eta kudeaketaren eta arretaren kalitatea bermatzeko zailtasunen errealitatea berriaz ezagutzen jarraitzeko, eta jokabide egokien ereduak eskaintzeko, eta sistema bere helburuetarantz bultzatuko duten baliabide berritzaile eta alternatiboak



esperimentu bezala probatzeko, esparru honetan eta modu orokorrean aurreikusiko dira kudeaketa publikoaren eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketaren nagusitasuna, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzu eta prestazioak ematerakoan.

35. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa.

1.– Lau urtez behin, Eusko Jaurlaritzak, bere koordinazio-eskumenak erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa egingo du, foru-aldundiekin eta udalekin koordinaturik. Plan horren bidez planifikatuko ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren eta sistema horrek ahalik eta ondoena lan egiteko beharrezkoak diren prestazioak, zerbitzuak, programak eta bestelako jarduerak, lege honetan jasotako finantzabideren eta -formulen barruan. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa Eusko Jaurlaritzaren komunikazio baten bidez bidaliko zaio Eusko Legebiltzarrari.

2.– Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa horren baitan egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapa. Mapa horretan egongo da zehazturik, oinarrian, plana autonomia-lurraldearen luze-zabalean nola antolatu behar den.

3.– Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa horretan, besteak beste, gauza hauek denak zehaztu beharko dira: gizarte-premien diagnostikoa eta premia horien bilakaeraren iragarpena; lortu beharreko helburuak eta helburu horiek lortzeko lan-ildo estrategikoak eta ekintzarik egokienak; sektore publikoak eta pribatu itunduak zerbitzuak emateko parte-hartzeari buruzko orientabideak, beharrezko koordinazio-neurriak; planaren ebaluazio sistematiko eta jarraitua egiteko baliabideak, eta hori guztia 5. artikuluan aipatutako gizarte-zerbitzuen sare publikoa taxutzeko amaiera-helburuarekin, 7.a) artikuluan ezarritako moduan. Azkenik, 76. artikuluan aipaturik datozen tresna eta prozedurak ere bildu behar ditu. Tresna eta prozedura horiek, hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten prestazio, zerbitzu, programa eta jardueren kalitatea hobetzeko balio behar dute.

4.– Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa memoria ekonomikoa izan behar du beti aldamenean. Memoria horretan zehaztu beharko da, hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Katalogoan eta Karteran zehazturik datozen prestazioak eta zerbitzuak aldi-aldi martxan jartzeko ustez zertan zenbat diru beharko den, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan datozen biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak gogoan izanik.

5.– Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, onartua izan baino lehen, beharrezkoa izango du Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren txosten nahitaezkoaz gain, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren nahitaezko txostena, organo hori kontsulta eta gizarte partaidetzarako organo nagusia den aldetik.



6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzkoa

2016ko maiatzaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua

7. artikulua. Elkarrizketa zibila.

1. Elkarrizketa zibilaren printzipioari jarraiki, Euskadiko hirugarren sektorre sozialeko erakunde eta sareek, eta horien bitartez esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateek, eskubidea izango dute ukitzen dituzten politika publikoetan parte hartzeko, politika publiko horien edozein fasetan, egikaritze-fasea barne, betiere lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzen duen araudian jasotako baldintzei jarraiki, kaltetu gabe hala ere erakunde bakoitzaren gobernu-organoei dagozkien erabaki-gaitasunak.

2. Sektorre publikoaren eta hirugarren sektorre sozialeko erakunde eta sareen arteko elkarrizketarako eta lankidetzarako prozesu formala da elkarrizketa zibila, helburu duena orientatzea, bultzatzea eta ebaluatzea sektorre publikoak eta hirugarren sektorre sozialak esku-hartze sozialaren esparruan abiarazi beharreko politika sozialak eta bestelako ekimenak.

3. Eusko Jaurlaritzak, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren edo hura ordezkutzen duen erakundearen bitartez, elkarrizketa etengabe, operatibo eta binoranzkoa edukiko Euskadiko hirugarren sektorre sozialeko sareekin, gobernu-ekintzari dagokionez, eta baita erakunde eta sareek esku-hartze sozialaren esparruan gauzatutako ekintzari dagokionez ere, baldin eta ekintza horrek ekimen jakin batzuk sortzen baditu alderdietako edozeinek bultzatu beharrekoak edo lankidetzan bultzatu beharrekoak, horien jarraipena eta ebaluazioa eginez.

4. Era berean elkarrizketa horren helburua izango da aurrerapenak egitea eskubideak errekonozitzen eta benetan erabilgarri egiten horiek baliarazteko zailtasun handienak dituzten pertsona, familia, kolektibo eta komunitateei.

5. Foru-aldundiek eta toki-erakundeek ere ezaugarri horietako beretako elkarrizketa edukiko dute, egokitzat jotzen dituzten baliabideen bitartez, beren lurraldeetan jarduerak gauzaten dituzten Euskadiko hirugarren sektorre sozialeko sareekin.

6. Eusko Legebiltzarrak eta lurralde historiko bakoitzeko batzar nagusiek, halaber, elkarrizketa zibila sustatuko dute hirugarren sektore sozialeko sareekin.

7. Euskal sektore publikoak neurriak bultzatuko ditu hirugarren sektore sozialak hirugarren sektore sozialarekin eta esku-hartze sozialarekin zerikusia duen jardura publikoko politikan eta ildoetan eduki beharreko partizipazio erreal eta efektiboan sakontze aldera, aholku-ematetik harago joanik, kontuan hartuz ukitutako pertsona eta kolektiboen beharrianak eta eskaerak, eta bermatuz pertsona eta kolektibo horiek eta erakundeek partizipazio efektiboa eta eragina edukitzea aipatutako politiken eta ekintza-ildoen diseinuan, exekuzioan, jarraipenean eta ebaluazioan.



3sauskadi

Hirugarren Sektorre Sozialeko
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social

EUSKO JAURLARITZA

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLITICAS SOCIALES

III. KAPITULUA

Lankidetzeta eta elkarlana esku hartze sozialaren esparru politikak egikaritzean

10. artikulua. Lankidetzeta erantzukizun publikoko sistemetan eta sistemen arteko elkarrenguneetan.

1. Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta sareek politika sozialetan izan beharreko partizipazioa, politika publiko horien edozein fasetan, egikaritze-fasea barne, lankidetzaren bitartez hezuramituko da, lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzeko araudian bildutako baldintzetan. Dagokion politika gauzatuko den arreta-arlo edo arreta-mailako ardura duen administrazio publikoak zehaztuko du partizipazio horren irismena, eta honako alderdietan gertatu ahal izango da: a) Parte-hartzea esku-hartze sozialaren esparruko erantzukizun publikoko sistemen kudeaketan, eta sistemen elkarrenguneen kudeaketan (gune soziolaboralean, soziohabitazionalan, soziosanitarioan, sozioedukatihoan, edo beste batzuetan) b) Parte-hartzea erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan edo apurka-apurka erantzukizun publikoko gisa finkatzen ari diren zerbitzuen hornikuntzan (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza) c) Parte-hartzea (edozein kasutan, administrazio publiko arduradunak delegatutako parte-hartzea, araudi bidez zehaztuta dagoenean) erreferente-figurarekin eta kasu-koordinazioarekin lotutako funtzioak gauzatzeko prozesuan (diagnostikoa, esku-hartzearen programazioa, jarraipena eta ebaluazioa, lagun-egite soziala barne), betiere erantzukizun publikoko sistema bat baino gehiago eraginpean hartzen badute (besteak beste, zerbitzu sozialak, osasuna eta hezkuntza) d) Parte-hartzea pertsona eta familiei zuzendutako lagun-egite sozialean, eskuhartzearen prozesu osoan, eta nolahi ere, pertsona hartzaileekin kontaktu-jarduerak hasieratik gauzatu (pertsona hartzaileak baliabideen jakinaren gainean egotea ahalbidetuko lukete), eta baita beste hainbat jarduera ere, hala nola hasierako harrera, informazioa, orientazioa eta zerbitzu sozialen euskal sistemara sartzeko zerbitzuetarako deribazioa.

2. Zerbitzu sozialen euskal sistemak, diru-sarrerak bermatzeko eta inklusio sozialerako euskal sistemak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta gune soziolaboralak, eta horiekin batera euskal osasun- eta hezkuntza-sistemak, sustatuko dute Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta sareek parte hartzea gune soziosanitarioan eta sozio-edukatihoan, beharrezkoak diren partizipazio-formulak eta -bideak gaituta.

11. artikulua. Lankidetzeta erantzukizun publikoko sistemen kudeaketan eta sistemen arteko elkarrenguneen kudeaketan.

Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizuna duten euskal administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek parte har dezaten honako hauetan: batetik, sistema edo gune bakoitzaren baliabide-sarearen plangintza eta berrikuntza-funtzioetan,

eta zehazkiago horien diseinuan, plangintzan, ebaluazioan eta hobekuntzan; eta bestetik, prestazio eta zerbitzu esperimentalen diseinuan, egikaritzean, ebaluazioan eta hobekuntzan.

12. artikulua. Lankidetzaren erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan.

1. Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizuna duten euskal administrazio publikoek antolatuko dute Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan (diseinua, prestazioa, ebaluazioa eta hobekuntza) izan beharreko partaidetza.

2. Parte-hartze hori bereziki artikulatuko da adierazitako erakundeek zerbitzu horiek jada ematen ari direnean, are erantzukizun publikoko zerbitzu gisa finkatu baino lehenagotik ere, errekonozitze aldera erakundeon esperientzia eta erakundeok bai pertsona hartzaileentzat eta erantzukizun publikoko sistemarentzat, bai eta beraien antolaketa eta finkapenerako, orain arte egin duten eta orain egiten ari diren ekarpenaren balioa.

3. Nolanahi ere, partizipazio hori bermatu egingo da izaera bereziko jarduera gauzatzen dutenean. Izaera bereziko jardueratzat hartuko dira: a) Erakunde gisa ezaugarri jakin batzuk dituztenean, zehazki: lurralde eta kolektibo jakin batekin lotuta egotea; pertsona hartzaileek erakundearen gobernuan ere parte hartzea; lor dezaketen edozein mozkin beren misioan inbertitzea; eta erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzan duten partizipazioa interes orokorreko beste jarduera sozial batzuetan partizipazioarekin konbinatzea. b) Beren esku-hartzearen ezaugarriek balioa eransten diotenean erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzari, pertsona eta familiei arreta pertsonalizatua, integrala (hainbat zerbitzu konbinatuta eta lagun-egite sozialeko funtzioa beren gain hartuta, baita horiek erantzukizun publikoko esparru edo sistema bat baino gehiago barnean hartzen dituztenean ere) eta etengabekoa emanez, eta beharrezkoa denean baita bizitza osoko arreta emanez ere, premien bilakaerari aurrea hartuz eta erantzunetan berrikuntzak txertatuz.

4. Euskal administrazio publikoek erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntzari balio erantsia ekartzen dioten praktikak sustatuko dituzte, eta zehazki esku-hartze sozialaren esparruko arau sektorialetan jasotako arreta-ereduekin eta kalitate-irizpideekin lotutakoak; beste hainbat praktika ere bultzatuko dituzte, hala nola lor dezaketen edozein mozkin inbertitzea Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen misio edo helburu sozialean.

13. artikulua. Lankidetzaren erreferente-funtzioan eta kasu-koordinazioan.

1. Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizuna duten euskal administrazio publikoek faboratuko dute Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek kasu-koordinazioko funtzioak gauzatzean izan beharreko partizipazioa, horrelakoak aurreikusten dituzten erantzukizun publikoko sistemen esparruan, eta betiere zerbitzu eta prestazio horiez guztiez hornitzeko, eta horrenbestez, pertsona eta familia erabiltzaileei zerbitzu horiek esleitzeko ardura duten administrazio publikoek gainbegiratuta.



2. Zehazki, erreferente-funtzioetako eta kasu-koordinazioko partizipazio hori bermatuko dute erakundeek pertsona eta familia hartzaileei eskaintzen dietenean arreta pertsonalizatu eta integrala, hainbat zerbitzu eta jarduera konbinatuz (batzuetan, esparru edo sistema jakin bat gaindi dezakete horiek, hala nola zerbitzu sozialak, hezkuntza eta osasuna), eta baita etengabeko arreta ere, arreta hori pertsona eta familien premia, gaitasun eta lehentasunen eboluziora egokituz.

14. artikulua. Lankidetzaren interes orokorreko beste jardueraren sozial batzuetan.

1. Euskal administrazio publikoek eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek sinergiak bultzatuko dituzte esku-hartze sozialaren esparruan gauzatzen duten ekintzan, eta elkarrekin sustatuko dituzte, batetik, egoera sozial ahuleneko kolektibo eta komunitateek eskubideetara duten irispidea indartzeko proiektuak, eta bestetik, gizarte zibil antolatua eta erantzukizun publikoko sistemak sendotzeko proiektuak.

2. Horretarako, modu berritzaileak garatuko dituzte elkarrekin eta beste agente sozial batzuekin partekaturiko proiektuen kudeaketan, premiak detektatzeko fase baliabide-faseraino, proiektu horiek erantzukizun publikoko sistemen esparruan garatzen direnean, bereziki prestazio edo zerbitzu esperimentalei dagokienez, nahiz horietatik kanpo garatzen direnean, premia sozialei eta horien bilakaerari erantzuteko.

15. artikulua. Administrazio publikoen eta Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundearen arteko lankidetzaren eta elkarlana formalizatzeko tresnak.

1. Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeari dagokionez, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeekiko lankidetzaren formalizatzeko, euskal administrazio publikoek Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean aurreikusitako hitzarmen-araubide berezia baliatuko dute.

2. Halaber, euskal administrazio publikoek Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean aurreikusitako hitzarmenak eta lankidetzarako esparru-akordioak formalizatuko dituzte, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntza eta erakundearen interes orokorreko bestelako jardueraren sozialak estaltzeko, administrazio publikoek horrelakoak sustatzea egokitzen jotzen badute.

3. 12.3 artikuluan zehaztutako baldintzetan izaera bereziko jardueraren bat duten erakundeekin erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeko lankidetzaren aritzeari gagozkiola, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen araberrako hitzarmenen bitartez formalizatuko da lankidetzaren hori.

16. artikulua. Euskal administrazio publikoekin lankidetzan eta elkarlanean aritzen diren Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen obligazioak.

1. Erantzukizun publikoko zerbitzu sozialen hornikuntzan euskal administrazio publikoekin lankidetzan aritzen diren edo interes orokorreko bestelako hainbat jarduera sozialean elkarlanean diharduten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek honako obligazio hauek izango dituzte:

a) Langile kontratatu ordainduei lan-baldintza duinak bermatzea, betez bai erreferentziatzko hitzarmen kolektiboak, bai erakundeek kudeatzen dituzten erantzukizun publikoko zerbitzuen horniketean lan-baldintzei buruzko arau-xedapenak, eta langile boluntarioei ere lan-baldintza egokiak bermatzea, boluntariotzaren legediarekin bat etorruta.

b) Gardenak izatea eta azalpenak ematea, barnean nahiz kanpoan, hala badagokio gardentasunari, informazio publikora iristeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoari jarraituz. Zehazki, erantzukizun publikoko zerbitzuen horniketean laguntzen duten erakunde guztiek behartuta egongo dira informazioa ematera, lege horren 4. artikuluan eta dagokion kontratuan, hitzarmenean, itunean edo lankidetzako esparru-akordioan aurreikusitako eran.

c) Gauzatzen duten jardueraren eragina kontuan hartzea eta ebaluatzea, honako hiru elementu hauetan oinarrituta: lehenik, gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-ikuspegia; bigarrenik, genero-ikuspegia; eta hirugarrenik, azken hartzaileen eskubideak eta aukerak.

d) Erabakiak hartzeko, honako hiru ezaugarri hauek izango dituzten partizipazio prozedurak erabiltzea: batetik, erakundearen izaera juridikora egokituta egotea; bestetik, kapital-jabetzan oinarrituta ez egotea; eta azkenik, erakundearen parte diren kolektiboak –baita hartzaileak ere– barnean hartzea, hainbat mailatan.

e) Kudeaketa-estilo demokratikoaz gain, kanpoko nahiz barneko alderdi interesdunekin harremanetan egoteko estrategia bat edukitzea.

f) Jardutea halatan non bere antolamenduan, funtzionamenduan eta jardueretan benetan kontuan hartuko den emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa. Ondorioz, sexista ez den hizkera erabiliko dute, neurriak hartuko dituzte aurreikusteko eta tratatzeko emakume eta gizonen arteko sexu-jazarpena eta sexu-arrazoiengatikoz jazarpena eta laneko diskriminazioa, eta 250 langile baino gehiago baditu, egiaztatu egin beharko du Emakume eta Gizonen Berdintasun Efectiboari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege organikoan aurreikusten den berdintasun-planaren diseinua eta ezarpen efektiboa.



g) Jardutea halatan non antolaketan, funtzionamenduan eta ekintzetan benetan nabarituko diren aukera eta tratu berdintasunaren printzipioa eta bereizkeriarik ezaren printzipioa, edozein delarik ere baldintza pertsonal edo soziala.

h) Ingurumena errespetatuz jardutea. Horrela, gauzatzen den jarduera-motari egokitutako neurriak hartuko ditu, lehenetsuna emanik energia berriztagarriak erabiltzeari eta ezinbestekoak diren lehengaiak baliatzeari, ahal direnak berrerabiliz eta gainerakoa birziklatuz.

i) Baldintza hoberenetan ematea zerbitzuak, eta bermatzea betetzen direla langileen segurtasun eta osasun laboralari buruzko xedapenak zerbitzu sozialen hornikuntzan eta jardunean.

j) Etengabeko hobekuntza sustatzea gaitasun teknikoari, metodologia- eta antolamendu-baliabideei eta jardute-gaitasunari dagokionez..

k) Ahalegina egitea herritarrei bakoitzak aukeratutako hizkuntza ofizialean arreta emateko.

l) Urteko kontuak egin eta kontu horiek gobernu-organoaren eta kanpo-auditoretza baten onarpenaren menpe uztea.

m) Sustatzea dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta insertzio soziolaboraleko prozesuan dauden pertsonen kontratazio eta integrazioa.

2. Arestian aipaturiko obligazioak betetzen direla bermatzeko, administrazio publikoek beharrezkoak diren aldiroko kontrol- eta ebaluazio-mekanismoak sustatuko dituzte, alderdi guztien parte hartzearekin. Obligazio horiek ez betetzeak euskal administrazio publikoekiko lankidetzeta eta elkarlana deuseztatzea eragin ahal izango du.